

IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Irakurle talde honetan ahalduntze eta kontzientziatze feministan sakonduko dugu, betiere pentsamendu kokatua eta gorpuztua ardatz hartuta. Horretarako, esperientzia eta pentsamendu feministek sorturiko galderak, kezak, giltzarriak eta diskurtsoak izango ditugu eztabaidagai. Askotariko irakur-gaietatik abiatu (testu solteak, artikuluak, liburuak...) eta trukerako gune bat sortzea izango dugu helburu, pentsamendu kolektiboa sustatzeko, eta Euskal Herriari zein euskal kulturari buruzko pentsamendu kritiko-feminista garatzeko asmoz.

HELBURUAK

- Teoria feminista klasikoen zein garaikideen berri izatea, betiere kezka pertsonal zein gorpuztuak ardatz hartuta.
- Kontzientzia feminista eta ahalduntze feminista modu kooperatibo zein kolaboratiboan sustatzeko gune kolektibo bat sortzea.
- Pentsamendu feminista garatzen duten testu teoriko, biografiko zein artistikoak interpretatzeko gakoez jabetzea.
- Teoria feminista klasikoen zein garaikideen berri izatea, betiere kezka pertsonal zein gorpuztuak ardatz hartuta.
- Euskaraz sorturiko pentsamendu feminista ezagutzea, eta feminismoaz euskaraz jarduteko trukerako espazio bat sortzea (adibidez, euskal kulturaren ikuspegi feministen berri emanez, edota Euskal Herrian kokaturiko ekarpen feministak ikusgai eginez).

DINAMIKA ETA LAN-METODOLOGIA

Irakurketa-saio hauetan feminismoaren pentsalariek eta ikertzaileek garaturiko testuak irakurriko ditugu, baina, baita emakumeen esperientziak biltzen dituzten irakurgaiak ere. Lehen saioan, parte-hartzaileei irakurgaiak eta solaserako gaiak aurkeztuko zaizkie, eta taldeko kideon artean horiek hitzartu ondoren, hilean behin parte-hartzaileek irakurgai bat landuko dute saiora hurbildu aurretik.

Saioetan irakurgai horietara hurbilduko gara, eta horretarako, honako gogoeta-ildo hauek egingo ditugu irakurgaiak irakurgai: batetik, testu horietan egiten diren galdera feministak eta ekarpen feministak guztion artean aletzen ahaleginduko gara; bestetik, irakurgaiak proposaturiko ekarpenak guztion artean laburtu ondoren, ekarpen horiek gaurkotatzen duten aztertuko dugu; eta azkenik, irakurgai horietan proposaturiko gogoeta feminista horiek geure bizipenak ulertzeko erabiltzerik ditugun aztertuko dugu. Irakurgaiak proposaturiko egoera, ideia zein imajinarioen inguruan solasean arituko gara, betiere guran erroturiko kode zenbait birpentsatze aldera, eta egunerokoan gertaerak zein emozioak

interpretatzeko ditugun ohiturak birpentsatze aldera. Azken batean, solasaldi hauen bitartez konfiantzazko giro bat sortzea dugu helburu, gudan erroturiko ohitura, keinu edo kode matxistak deseraikitze, eta ahalduz feministan urratsak egin ahal izateko.

Irakurgaiak euskaraz zein gazteleraz irakurriko ditugu, baina, eztabaida zein solasa euskaraz garatuko dugu, besteak beste, euskarazko pentsamendu feminista sustatu nahi duelako irakurle-talde honek. Testuinguru horretan, garrantzi berezia emango zaio gogoeta-ildo honi ere: nola ekarri Euskal Herrira eta euskal kulturara irakurgaietan proposaturiko ekarpen feministak?

Solasaldi dialogikoa izango du ardatz irakurle-taldeak. Solasaldia gidatzeko, parte-hartzaileei irakurgai bakoitzean galdera-sorta bat emango zaio, saioan bertan gogoeta-ildo batzuk partekatzeke parte-hartzaile guztiei. Solasaldian honako urrats hauek egingo dira: hasteko, lehen txanda batean parte-hartzaileek irakurgaiaren irakurraldiaren inguruko esperientziak jardungo dute (irakurraldia gozatu duten ala ez, zer egin zaien deigarri, zer egin zaien atsegin/desatsegin...); ondoren, galdera-sortari tira egingo diogu, irakurgaiaren ekarpen nagusiak biltzeko parte-hartzaile guztion artean; hirugarrenik, gure esperientzien eta bizipenen inguruan jardungo dugu, betiere testuko ekarpenetatik abiatuz; eta azkenik, irakurgaiako proposamen feministak euskal kulturako adierazpideak edo Euskal Herriko gertaerak/egoerak/egiturak ulertzeko nola erabil ditzakegun aztertuko dugu.